



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko otsailaren 17an

17 ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:

- Zaraitzu Ibarreko Udalei eta Zaraitzuko Batzarre Nagusiari buruzko fiskalizazio-txostena, 1998ko ekitaldiko, Kontuen Ganbarak egin (2. or.).
- Zaraitzu Ibarreko toki zerbitzu publikoak emateko gastuen arrazoizkotasun ekonomikoari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganbarak egin (20. or.).

G Saila:**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA****Zaraitzu Ibarreko Udalei eta Zaraitzuko Batzarre Nagusiari buruzko fiskalizazio-txostena, 1998ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urtarrilaren 25ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak Zaraitzu Ibarreko Udalei eta Zaraitzuko Batzarre Nagusiari buruz egindako fiskalizazio txostena, 1998ko ekitaldikoa, argitaratzea.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Zaraitzu Ibarreko Udalei eta Zaraitzuko Batzarre Nagusiari buruzko fiskalizazio-txostena, 1998ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (3. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (3. or.).
- IV. Espartza-Zaraitzuko Udala (3. or.).
 - IV.1. Iritzia (3. or.).
 - IV.2. Finantzei buruzko egoera-orriak (4. or.).
- V. Ezkarozeko Udala (5. or.).
 - V.1. Iritzia (5. or.).
 - V.2. Finantzei buruzko egoera-orriak (6. or.).
- VI. Galozeko udala (7. or.).
 - VI.1. Iritzia (7. or.).
 - VI.2. Finantzei buruzko egoera-orriak (8. or.).
- VII. Gorzako Udala (8. or.).
 - VII.1. Iritzia (8. or.).
 - VII.2. Finantzei buruzko egoera-orriak (9. or.).
- VIII. Itzaltzuko Udala (10. or.).
 - VIII.1. Iritzia (10. or.).
 - VIII.2. Finantzei buruzko egoera-orriak (11. or.).
- IX. Jaurrietako Udala (12. or.).
 - IX.1. Iritzia (12. or.).
 - IX.2. Finantzei buruzko egoera-orriak (13. or.).
- X. Otsagabiko Udala (13. or.).
 - X.1. Iritzia (13. or.).
 - X.2. Finantzei buruzko egoera-orriak (14. or.).
- XI. Orontzeko Udala (15. or.).
 - XI.1. Iritzia (15. or.).
 - XI.2. Finantzei buruzko egoera-orriak (16. or.).
- XII. Sartzeko udala (17. or.).
 - XII.1. Iritzia (17. or.).
 - XII.2. Finantzei buruzko egoera-orriak (18. or.).
- XIII. Zaraitzuko Batzarre nagusia (18. or.).
 - XIII.1. Iritzia (18. or.).
 - XIII.2. Finantzei buruzko egoera-orriak (19. or.).

I. SARRERA

Zaraitzu ibarra Nafarroako iparraldean dago, Iruñetik 80 kilometrotara, eta ondoko herriek osatzen dute: Espartza-Zaraitzu (122 biztanle), Ezkaroze (366 biztanle), Galoze (Izize, Itzalle, Uskartzte) (122 biztanle), Gorza (Igari, Erripalda) (79 biztanle), Itzaltzu (52 biztanle), Jaurrieta (264 biztanle), Otsagabia (680 biztanle), Orontze (61 biztanle) eta Sartze (Ibiltzieta) (79 biztanle).

Bederatzi herri horiek osatzen dute Zaraitzuko Mankomunitatea. Hura osatzen duten ondasun guztien benetako ordezkari eta administratzailea Zaraitzuko Batzarre Nagusia da.

Udal horiek ez dute ez erakunde autonomorik ez toki enpresarik, eta denak daude hiri hondakin

solidoak kudeatzeko Ezka-Zaraitzuko Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatean eta Nafarroako Pirinioetako Turismo Partzuergoan.

Txostena baliagarriagoa izan dadin eta ibarrari buruzko ikuspegi orokorra ematearren, agiri bakar batean eman ditugu Zaraitzu osatzen duten toki entitateei buruzko fiskalizazio txostenak.

Txostenaren osagarri, beste txosten bat egin dugu, ibarrean ematen diren zerbitzu publikoen arazoizkotasun ekonomikoari buruzkoa.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Zaraitzu Ibarreko Udalen eta Zaraitzuko Batzarre Nagusiaren 1998ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazioa egin dugu. Hala ere, ekitaldi horretako Gastu eta Dirusarrera Aurrekontuen betetzea ere fiskalizatu dugu.

Toki entitateei aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: aurretik aipaturiko legeak, Toki Araubidearen Oinarriak eraentzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuak, administrazio-kontratazioari buruzko arauak eta Nafarroako toki-enteei orokorki aplikatzekoak zaizkion gainontzeko arauak, eta bereziki, Zaraitzuko ordenantzek.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

a) Zaraitzuko Udalen eta Batzarre Nagusiaren 1998ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 1998ko abenduaren 31n zegoen ondare-egoera islatzea, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Zaraitzuko Udalen eta Batzarre Nagusiaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari lotua egon ote den.

d) Zein zen Zaraitzuko Udalen eta Batzarre Nagusiaren finantza-egoera 1998ko abenduaren 31n.

III. NORAINOKOA

Bere jarduketa-programari jarraituz, Kontuen Ganbarak Zaraitzuko Udalen eta Batzarre Nagusiaren 1998ko ekitaldiko fiskalizazioa egin du.

Aurrekontu-kontabilitatean baino ez ditu jasotzen Udalak bere eragiketak.

Beraz, eginiko lanak haxe izan du arretagai: dirusarrera eta gastuei buruzko atal ekonomikoak berrikustea, antolamenduari, kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkion hainbat puntu aztertuz.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsiriko fiskalizazio-printzipio eta -arauei jarraituz burutu dugu lana. Era berean, egoera kontuan hartuz eta alde aurretik Zaraitzuko Udalei eta Batzarre Nagusiari bidali genien galdera-sortak agerian utzitako arazoak kontuan hartuz beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatu ditugu.

Kontabilitate orokorrik ezak mugatu egin du Zaraitzuko Udalen eta Batzarre Nagusiaren ondare-egoerari buruz egin dugun azterketa.

Txostenean daude Zaraitzuko Udalen eta Batzarre Nagusiaren kudeaketa hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

Azterketa lana 1999ko uztailaren eta irailean egin dugu.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak ematen dizkiegu Zaraitzuko Udaleta eta Batzarre Nagusiko langileei.

IV. ESPARTZA-ZARAITZUKO UDALA

IV.1. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Espartza-Zaraitzuko Udalaren 1998ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aztertu dugu.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta -prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzia hau agertuko dugu:

IV.1.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionez

Honekin batera doa 1998ko aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko azalpena, eta behar bezala erakusten ditu fiskalizaturiko ekitaldian Udalak egindako eragiketak, sortapen printzipioa modu sistematikoan aplikatu ez dela salbuetsita, baina horrek ez dio eragiten Udalak garatu duen jardueraren informazioari.

IV.1.2. Ondare-egoeraren agerpena

Ondare-kontabilitaterik ezak eta udal inbentarioa –1994koa– gaurkotu gabe egoteak ezinezko

egiten digute Udalaren 1998ko abenduaren 31ko ondare-egoerari buruzko iritzia ematea.

IV.1.3. Legezketasuna

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz burutu da, nahiz eta aurrekontu alorreko hainbat ez-betetze antzeman diren.

IV.1.4. Egoera ekonomiko-finantzarioa

Espartza-Zaraitzuko Udalak behar den moduko finantza-egoera du 1998ko abenduaren 31n. Zorpetze-maila zorpetze-mugaren azpitik dago –aurrezki garbia 2 milioikoa da, eta diruzaintza-gerakina 13 milioikoa–. Entitatearen zorra inbertsioak finantzatzeko 1992ko eragiketa batean metatzen da –zor bizia 37 milioikoa da.

Laburtuz, eta **ondorio nagusi gisa**, esan genezake Espartza-Zaraitzuko Udalak honako hau egiten duela:

- Aurrekontuak modu egokian kudeatzen ditu, administrazio-ikuspegi batetik begiraturaz, baina beharrezko du:

a) Kontabilitate sistema osatu, udal errealitatearen ikuspegi osoa ahalbidetzeko.

b) Gastu-dirusarrerren sortzapen printzipioa zuzen aplikatzea, alegia, egiten direnean kontabilizatu, eta ez ordaindu edo kobratzen direnean.

c) Aurrekontutze-teknikak hobetzea, aurrekontuan jasotako aurreikuspenak benetan bete ahal izateko, batez ere inbertsio errealean alorrekoak.

d) Beharrezkoak diren prozedurak ezartzea aurrekontu-kreditu nahiko dagoela egiaztatzeko, gastu-obligazio bat aitortu edo indarreko legeriaren araberrako aurrekontu-aldaketak egin baino lehen.

e) Organo eskudunak onetsi behar ditu tributukontzeptuen erroldak; horretaz gain, egin beharreko argitalpen-iragarkiak egin behar dira, kobratzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, legez ezarritako korrituak eta gainkargua ezarriko dira.

f) Oihan aprobetxamenduen zenbatekoa hone-la kontabilizatu behar da: aitorturiko eskubide bezala, esleipenaren unean.

g) Aurrekontuz kanpoko kontusail gisa (VIAP) sailkatzea oihan aprobetxamenduen loteak esleitzegatik jasotako behin betiko fidantzak.

- Finantzen ikuspuntutik, behar den moduko egoera du, zorpetzea mugaz beheitikoa baita, eta diruzaintza-gerakina, aldiz, positiboa.

IV.2. FINANTZEI BURUZKO EGOERA-ORRIAK

1998ko ekitaldiko aurrekontuaren kitapena

Dirusarrerren kapituluak	Aurrekontua (pezetatan)		Kitaturiko eskubideak		Betetzea %
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	
1. Zuzeneko zergak	1.005.900	1.005.900	929.177	5.584,47	% 92,37
2. Zeharkako zergak	840.000	840.000	613.810	3.689,07	% 73,07
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	10.601.899	10.601.899	7.718.407	46.388,56	% 72,80
4. Transferentzia arruntak	2.685.000	2.685.000	3.217.431	19.337,15	% 119,83
5. Ondare bidezko dirusarrerak	301.970	301.970	524.539	3.152,54	% 173,71
6. Inbertsio errealak besterentzea	0	0	367.525	2.208,87	
7. Kapital transferentziak	6.081.964	6.081.964	5.983.259	35.960,11	% 98,38
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
Dirusarrerak, guztira	21.516.733	21.516.733	19.354.148	116.320,77	% 89,95

Gastuen kapituluak	Aurrekontua (pezetak)		Aitorturiko obligazioak		Betetzea %
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	
1. Langileen ordainsariak	3.137.275	3.137.275	2.867.284	17.232,72	% 91,39
2. Ondasun err. eta zerb. erostea	4.415.000	4.415.000	3.673.872	22.080,42	% 83,21
3. Korrituak	1.914.855	1.914.855	1.914.855	11.508,51	
4. Transferentzia arruntak	1.197.600	1.197.600	913.508	5.490,29	% 76,28
6. Inbertsio errealak	14.277.229	14.277.229	4.797.420	28.833,07	% 33,60
7. Kapital transferentziak	0	0	0	0,00	
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	1.774.774	1.774.774	1.832.416	11.013,04	
Gastuak, guztira	26.716.733	26.716.733	15.999.355	96.158,06	% 59,89
Aldeak	-5.200.000	-5.200.000	3.354.793	20.162,71	

Ignacio Cabeza del Salvador auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

V. EZKAROEKO UDALA

V.1. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Ezkaroe-ko Udalaren 1998ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aztertu dugu.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatze-ko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta -prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau agertuko dugu:

V.1.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionez

Honekin batera doa 1998ko aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko azalpena, eta behar bezala erakusten ditu fiskalizaturiko ekitaldian Udalak egindako eragiketak, sortzapen printzipioa modu sistematikoan aplikatu ez dela salbuetsita, baina horrek ez dio eragiten Udalak garatu duen jardueraren informazioari.

V.1.2. Ondare-egoeraren agerpena

Ondare-kontabilitaterik ezak eta udal inbentaria -1994koa- gaurkotu gabe egoteak ezinezko egiten digute Udalaren 1998ko abenduaren 31ko ondare-egoerari buruzko iritzia ematea.

V.1.3. Legezketasuna

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz burutu da, nahiz eta aurrekontu alorreko hainbat ez-betetze antzeman diren, batez ere gastuetarako kredituen mugak ez direlako beti errespetatzen.

V.1.4. Egoera ekonomiko-finantzarioa

Ezkaroe-ko Udalak behar den moduko finantza-egoera du 1998ko abenduaren 31n, ia zorrik gabea. Ekitaldia ixtean, aurrezki garbiak 12 milioi pezeta egiten du; diruzaintza-gerakin positiboa, aldiz, 29 milioikoa da.

Laburtuz, eta **ondorio nagusi gisa**, esan genezake Ezkaroe-ko Udalak honako hau egiten duela:

- Aurrekontuak modu egokian kudeatzen ditu, administrazio-ikuspegi batetik begiraturaz, baina beharrezko du:

a) Kontabilitate sistema osatu, udal errealitatearen ikuspegi osoa ahalbidetzeko.

b) Gastu-dirusarreraren sortzapen printzipioa zuzen aplikatzea, alegia, egiten direnean kontabilizatu, eta ez ordaindu edo kobratzen direnean.

c) Aurrekontutze-teknikak hobetzea, aurrekontuan jasotako aurreikuspenak benetan bete ahal izateko, batez ere inbertsio errealen eta kapital-transferentzien alorrekoak.

d) Beharrezkoak diren prozedurak ezartzea aurrekontu-kreditu nahiko dagoela egiaztatzeko, gastu-obligazio bat aitortu edo indarreko legeriaren araberrako aurrekontu-aldaketak egin baino lehen.

e) Aurrekontua egin eta hura likidatzean, diru-sarrerak eta gastuak sailkatzeko irizpideak modu bateratuan aplikatzea.

f) Organo eskudunak onetsi behar ditu tributukontzeptuen erroldak; horretaz gain, egin beharreko argitalpen-iragarkiak egin behar dira, kobra-

tzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, legez ezarritako korrituak eta gainkargua ezarriko dira.

• Finantzen ikuspuntutik, egoera saneatua du, ia zorrik ere ez baitu eta diruzaintza-gerakina adierazgarria baita.

V.2. FINANTZEI BURUZKO EGOERA-ORRIAK

1998ko ekitaldiko aurrekontuaren kitapena

Dirusarreraren kapituluak	Aurrekontua (pezetatan)		Kitaturiko eskubideak		Betetzea %
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	
1. Zuzeneko zergak	3.854.052	3.854.052	3.887.265	23.362,93	% 100,86
2. Zeharkako zergak	2.300.000	2.300.000	2.635.102	15.837,28	% 114,57
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	10.875.995	10.875.995	14.332.414	86.139,54	% 131,78
4. Transferentzia arruntak	9.341.202	9.341.202	11.821.834	71.050,65	% 126,56
5. Ondare bidezko dirusarrerak	1.125.055	1.125.055	2.270.963	13.648,76	% 201,85
6. Inbertsio errealak besterentzea	0	0	0	0,00	
7. Kapital transferentziak	10.963.737	10.963.737	6.357.134	38.207,14	% 57,98
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
Dirusarrerak, guztira	38.460.041	38.460.041	41.304.712	248.246,32	% 107,40

Gastuen kapituluak	Aurrekontua (pezetak)		Aitorturiko obligazioak		Betetzea %
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	
1. Langileen ordainsariak	6.019.177	6.019.177	8.399.946	50.484,69	% 139,55
2. Ondasun err. eta zerb. erostea	8.894.862	8.894.862	11.247.851	67.600,95	% 126,45
3. Korrituak	0	0	0	0,00	
4. Transferentzia arruntak	2.653.724	2.653.724	3.019.450	18.147,26	% 113,78
6. Inbertsio errealak	36.863.959	36.863.959	19.917.421	119.706,11	% 54,03
7. Kapital transferentziak	0	0	0	0,00	
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
Gastuak, guztira	54.431.722	54.431.722	42.584.668	255.939,01	% 78,24

Aldeak	-15.971.681	-15.971.681	-1.279.956	-7.692,69	
---------------	--------------------	--------------------	-------------------	------------------	--

Ignacio Cabeza del Salvador auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

VI. GALOZEKO UDALA

VI.1. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Galozeko Udalaren 1998ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aztertu dugu.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta -prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau agertuko dugu:

VI.1.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionez

Honekin batera doa 1998ko aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko azalpena, eta behar bezala erakusten ditu fiskalizaturiko ekitaldian Udalak egindako eragiketak, sortzapen printzipioa modu sistematikoan aplikatu ez dela salbuetsita, baina horrek ez dio eragiten Udalak garatu duen jardueraren informazioari.

VI.1.2. Ondare-egoeraren agerpena

Ondare-kontabilitaterik ezak eta udal inbentarioa –1994koa– gaurkotu gabe egoteak ezinezko egiten digute Udalaren 1998ko abenduaren 31ko ondare-egoerari buruzko iritzia ematea.

VI.1.3. Legezketasuna

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz burutu da.

VI.1.4. Egoera ekonomiko-finantzarioa

Galozeko Udalak behar den moduko finantza-egoera du 1998ko abenduaren 31n, ia zorrik gabea. Aurrezki garbiak 4 milioi pezeta egiten du; diruzaintza-gerakin positiboa, aldiz, 10 milioikoa da.

Laburtuz, eta **ondorio nagusi gisa**, esan genezake Galozeko Udalak honako hau egiten duela:

- Aurrekontuak modu egokian kudeatzen ditu, administrazio-ikuspegi batetik begiraturaz, baina beharrezko du:

- a) Kontabilitate sistema osatu, udal errealitatearen ikuspegi osoa ahalbidetzeko.

- b) Gastu-dirusarreraren sortzapen printzipioa zuzen aplikatzea, alegia, egiten direnean kontabilizatu, eta ez ordaindu edo kobratzen direnean.

- c) Aurrekontutze-teknikak hobetzea, aurrekontuan jasotako aurreikuspenak benetan bete ahal izateko, kontusailen betetze-portzentajeen arteko aldeak gutxitzearen.

- d) Organo eskudunak onetsi behar ditu tributukontzeptuen erroldak; horretaz gain, egin beharreko argitalpen-iragarkiak egin behar dira, kobratzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, legez ezarritako korrituak eta gainkargua ezarriko dira.

- e) Ordenantza fiskalak indarra hartzen duten ekitaldiko urtarrilaren 1a baino lehen argitaratzea.

- Finantzen ikuspuntutik, behar den moduko egoera du, ia zorrik ere ez baitu eta diruzaintza-gerakina adierazgarria baita.

VI.2. FINANTZEI BURUZKO EGOERA-ORRIAK

1998ko ekitaldiko aurrekontuaren kitapena

Dirusarreraren kapituluak	Aurrekontua (pezetatan)		Kitaturiko eskubideak		Betetzea %
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	
1. Zuzeneko zergak	1.415.779	1.415.779	1.384.820	8.322,94	% 97,81
2. Zeharkako zergak	737.537	737.537	1.434.023	8.618,65	% 194,43
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	1.639.214	1.639.214	1.660.802	9.981,62	% 101,32
4. Transferentzia arruntak	1.283.000	1.283.000	2.619.182	15.741,60	% 204,15
5. Ondare bidezko dirusarrerak	15.000	15.000	175.289	1.053,51	% 1168,59
6. Inbertsio errealak besterentzea	0	0	0	0,00	
7. Kapital transferentziak	1.783.000	1.783.000	81.622	490,56	% 4,58
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
Dirusarrerak, guztira	6.873.530	6.873.530	7.355.738	44.208,88	% 107,02

Gastuen kapituluak	Aurrekontua (pezetak)		Aitorturiko obligazioak		Betetzea %
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	
1. Langileen ordainsariak	2.048.607	2.048.607	1.994.011	11.984,25	% 97,33
2. Ondasun err. eta zerb. erostea	669.169	669.169	568.844	3.418,82	% 85,01
3. Korrituak	0	0	0	0,00	
4. Transferentzia arruntak	1.155.754	1.155.754	780.541	4.691,15	% 67,54
6. Inbertsio errealak	3.000.000	3.000.000	104.400	627,46	% 3,48
7. Kapital transferentziak	0	0	0	0,00	
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
Gastuak, guztira	6.873.530	6.873.530	3.447.796	20.721,67	% 50,16

Aldeak	0	0	3.907.942	23.487,20	
---------------	----------	----------	------------------	------------------	--

Ignacio Cabeza del Salvador auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

VII. GORZAKO UDALA

VII.1. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Gorzako Udalaren 1998ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aztertu dugu.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeke Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta -prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau agertuko dugu:

VII.1.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionez

Honekin batera doa 1998ko aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko azalpena, eta behar bezala erakusten ditu fiskalizaturiko ekitaldian Udalak egindako eragiketak, sortzapen printzipioa modu sistematikoan aplikatu ez dela sal-

buetsita, baina horrek ez dio eragiten Udalak garatu duen jardueraren informazioari.

VII.1.2. Ondare-egoeraren agerpena

Ondare-kontabilitaterik ezak eta udal inbentarioa –1994koa– gaurkotu gabe egoteak ezinezko egiten digute Udalaren 1998ko abenduaren 31ko ondare-egoerari buruzko iritzia ematea.

VII.1.3. Legezketasuna

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz burutu da, nahiz eta aurrekontu alorreko hainbat ez-betetzere antzeman diren.

VII.1.4. Egoera ekonomiko-finantzarioa

Gorzako Udalak behar den moduko finantza-egoera du 1998ko abenduaren 31n, zorrik gabea. Aurrezki garbiak milioi bat pezeta egiten du; diruzaintza-gerakina, aldiz, 2 milioikoa da.

Laburtuz, eta **ondorio nagusi gisa**, esan genezake Gorzako Udalak honako hau egiten duela:

- Aurrekontuak modu egokian kudeatzen ditu, administrazio-ikuspegi batetik begiraturaz, baina beharrezko du:

a) Kontabilitate sistema osatu, udal errealitatearen ikuspegi osoa ahalbidetzeko.

b) Gastu-dirusarreraren sortzapen printzipioa zuzen aplikatzea, alegia, egiten direnean kontabilizatu, eta ez ordaindu edo kobratzen direnean.

c) Beharrezkoak diren prozedurak ezartzea aurrekontu-kreditu nahiko dagoela egiaztatzeko, gastu-obligazio bat aitortu edo indarreko legeriaren araberrako aurrekontu-aldaketak egin baino lehen.

d) Aurrekontutze-teknikak hobetzea, aurrekontuan jasotako aurreikuspenak benetan bete ahal izateko, kontusailen betetze-portzentajeen arteko aldeak gutxitzearen.

e) Organo eskudunak onetsi behar ditu tributukontzeptuen erroldak; horretaz gain, egin beharreko argitalpen-iragarkiak egin behar dira, kobratzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, legez ezarritako korrituak eta gainkargua ezarriko dira.

- Finantzen ikuspuntutik, behar den moduko egoera du, ia zorrik ere ez baitu eta diruzaintza-gerakina adierazgarria baita.

VII.2. FINANTZEI BURUZKO EGOERA-ORRIAK

1998ko ekitaldiko aurrekontuaren kitapena

Dirusarreraren kapituluak	Aurrekontua (pezetatan)		Kitaturiko eskubideak		Betetzea %
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	
1. Zuzeneko zergak	767.000	767.000	707.905	4.254,59	% 92,30
2. Zeharkako zergak	319.507	319.507	277.903	1.670,23	% 86,98
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	414.000	414.000	333.113	2.002,05	% 80,46
4. Transferentzia arruntak	937.393	937.393	1.633.687	9.818,66	% 174,28
5. Ondare bidezko dirusarrerak	20.000	20.000	12.538	75,35	% 62,69
6. Inbertsio errealak besterentzea	0	0	0	0,00	
7. Kapital transferentziak	23.000	23.000	27.000	162,27	% 117,39
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
Dirusarrerak, guztira	2.480.900	2.480.900	2.992.146	17.983,16	% 120,61

Gastuen kapituluak	Aurrekontua (pezetak)		Aitorturiko obligazioak		Betetzea %
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	
1. Langileen ordainsariak	1.289.951	1.289.951	1.241.887	7.463,89	% 96,27
2. Ondasun err. eta zerb. erostea	290.400	290.400	301.895	1.814,43	% 103,96
3. Korrituak	0	0	0	0,00	
4. Transferentzia arruntak	900.549	900.549	391.236	2.351,38	% 43,44
6. Inbertsio errealak	0	0	0	0,00	
7. Kapital transferentziak	0	0	0	0,00	
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
Gastuak, guztira	2.480.900	2.480.900	1.935.018	11.629,69	% 78,00
Aldeak	0	0	1.057.128	6.353,47	

Ignacio Cabeza del Salvador auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

VIII. ITZALTZUKO UDALA

VIII.1. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Itzaltzuko Udalaren 1998ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aztertu dugu.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeke Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta -prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau agertuko dugu:

VIII.1.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionez

Honekin batera doa 1998ko aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko azalpena, eta behar bezala erakusten ditu fiskalizaturiko ekitaldian Udalak egindako eragiketak.

VIII.1.2. Ondare-egoeraren agerpena

Ondare-kontabilitaterik ezak eta udal inbentarioa gaurkotu gabe egoteak ezinezko egiten digute Udalaren 1998ko abenduaren 31ko ondare-egoerari buruzko iritzia ematea.

VIII.1.3. Legezketasuna

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz burutu da, nahiz eta aurrekontu alorreko hainbat ez-betetze antzeman diren, batez ere gastuetarako kredituen mugak ez direlako beti errespetatzen.

VIII.1.4. Egoera ekonomiko-finantzarioa

Itzaltzuko Udalak behar den moduko finantza-egoera du 1998ko abenduaren 31n, zorrik gabea. Aurrezki garbiak milioi bat pezeta egiten du ekitaldia ixtean; diruzaintza-gerakina 5 milioikoa da, eta finantza-aktiboen maila, aldiz, 10 milioikoa.

Laburtuz, eta **ondorio nagusi gisa**, esan genezake Itzaltzuko Udalak honako hau egiten duela:

- Aurrekontuak modu egokian kudeatzen ditu, administrazio-ikuspegi batetik begiraturik, baina beharrezko du:

a) Kontabilitate sistema osatu, udal errealitatearen ikuspegi osoa ahalbidetzeko.

b) Aurrekontutze-teknikak hobetzea, aurrekontuan jasotako aurreikuspenak benetan bete ahal izateko.

c) Beharrezkoak diren prozedurak ezartzea aurrekontu-kreditu nahiko dagoela egiaztatzeko, gastu-obligazio bat aitortu edo indarreko legeriararen araberrako aurrekontu-aldaketak egin baino lehen.

d) Organo eskudunak onetsi behar ditu tributukontzeptuen erroldak; horretaz gain, egin beha-

rreko argitalpen-iragarkiak egin behar dira, kobratzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, legez ezarritako korrituak eta gainkargua ezarriko dira.

e) Ordenantza fiskalak indarra hartzen duten

ekitaldia baino lehen argitaratzea.

- Finantzen ikuspuntutik, behar den moduko egoera du; izan ere, zorrik ere ez du, diruzaintzagerakina adierazgarria da eta finantza-aktiboen bolumena, aldiz, handi samarra.

VIII.2. FINANTZEI BURUZKO EGOERA-ORRIAK

1998ko ekitaldiko aurrekontuaren kitapena

Dirusarrerren kapituluak	Aurrekontua (pezetatan)		Kitaturiko eskubideak		Betetzea %
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	
1. Zuzeneko zergak	678.000	678.000	766.091	4.604,30	% 112,99
2. Zeharkako zergak	635.000	635.000	705.035	4.237,35	% 111,03
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	932.000	932.000	954.407	5.736,10	% 102,40
4. Transferentzia arruntak	1.130.000	1.130.000	1.927.067	11.581,91	% 170,54
5. Ondare bidezko dirusarrerak	603.000	603.000	938.516	5.640,59	% 155,64
6. Inbertsio errealak besterentzea	0	0	0	0,00	
7. Kapital transferentziak	2.700.000	2.700.000	4.527.228	27.209,19	% 167,68
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	0	2.000.000	12.020,24	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
Dirusarrerak, guztira	6.678.000	6.678.000	11.818.344	71.029,68	% 176,97

Gastuen kapituluak	Aurrekontua (pezetak)		Aitorturiko obligazioak		Betetzea %
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	
1. Langileen ordainsariak	761.000	761.000	1.637.512	9.841,65	% 215,18
2. Ondasun err. eta zerb. erostea	1.045.000	1.045.000	1.795.993	10.794,14	% 171,87
3. Korrituak	0	0	0	0,00	
4. Transferentzia arruntak	1.472.000	1.472.000	821.400	4.936,71	% 55,80
6. Inbertsio errealak	3.400.000	3.400.000	4.914.142	29.534,59	%144,53
7. Kapital transferentziak	0	0	725.994	4.363,31	
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
Gastuak, guztira	6.678.000	6.678.000	9.895.041	59.470,39	% 148,17

Aldeak	0	0	1.923.303	11.559,28	
--------	---	---	-----------	-----------	--

Ignacio Cabeza del Salvador auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

IX. JAURRIETAKO UDALA

IX.1. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Jaurrietako Udalaren 1998ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aztertu dugu.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta -prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau agertuko dugu:

IX.1.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionez

Honekin batera doa 1998ko aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko azalpena, eta behar bezala erakusten ditu fiskalizaturiko ekitaldian Udalak egindako eragiketak, sortzapen printzipioa modu sistematikoan aplikatu ez dela salbuetsita, baina horrek ez dio eragiten Udalak garatu duen jardueraren informazioari.

IX.1.2. Ondare-egoeraren agerpena

Ondare-kontabilitaterik ezak eta udal inbentarioa –1994koa– gaurkotu gabe egoteak ezinezko egiten digute Udalaren 1998ko abenduaren 31ko ondare-egoerari buruzko iritzia ematea.

IX.1.3. Legezketasuna

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz burutu da, nahiz eta aurrekontu alorreko hainbat ez-betetze antzeman diren, batez ere gastuetarako kredituen mugak ez direlako beti errespetatzen.

IX.1.4. Egoera ekonomiko-finantzarioa

Jaurrietako Udalak behar den moduko finantza-egoera du 1998ko abenduaren 31n. Diruzain-

tza-gerakin adierazgarria du –35 milioi–, eta 3 milioi pezetako zorra; aurreki garbia, aldiz, 11 milioi pezetakoa da ekitaldia ixtean.

Laburtuz, eta **ondorio nagusi gisa**, esan genezake Gorzako Udalak honako hau egiten duela:

- Aurrekontuak modu egokian kudeatzen ditu, administrazio-ikuspegi batetik begiraturaz, baina beharrezko du:

a) Kontabilitate sistema osatu, udal errealitatearen ikuspegi osoa ahalbidetzeko.

b) Gastu-dirusarreraren sortzapen printzipioa zuzen aplikatzea, alegia, egiten direnean kontabilizatu, eta ez ordaindu edo kobratzen direnean.

c) Aurrekontutze-teknikak hobetzea, aurrekontuan jasotako aurreikuspenak benetan bete ahal izateko, inbertsio errealitatekoak eta kapital-transferentzietakoak bereziki.

d) Beharrezkoak diren prozedurak ezartzea aurrekontu-kreditu nahiko dagoela egiaztatzeko, gastu-obligazio bat aitortu edo indarreko legeriaren araberrako aurrekontu-aldaketak egin baino lehen.

e) Organo eskudunak onetsi behar ditu tributukontzeptuen erroldak; horretaz gain, egin beharreko argitalpen-iragarkiak egin behar dira, kobratzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, legez ezarritako korrituak eta gainkargua ezarriko dira.

f) Oihan aprobetxamenduen zenbatekoa hone-lakontabilizatu behar da: aitorturiko eskubide bezala, esleipenaren unean.

- Finantzen ikuspuntutik, behar den moduko egoera du, ia zorrik ere ez baitu eta diruzaintza-gerakina adierazgarria baita.

IX.2. FINANTZEI BURUZKO EGOERA-ORRIAK

1998ko ekitaldiko aurrekontuaren kitapena

Dirusarrerren kapituluak	Aurrekontua (pezetatan)		Kitaturiko eskubideak		Betetzea %
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	
1. Zuzeneko zergak	2.526.009	2.526.009	2.363.201	14.203,12	% 93,55
2. Zeharkako zergak	2.116.047	2.116.047	2.846.723	17.109,15	% 134,53
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	11.331.745	11.331.745	11.995.909	72.096,87	% 105,86
4. Transferentzia arruntak	6.731.005	6.731.005	7.020.270	42.192,67	% 104,30
5. Ondare bidezko dirusarrerak	894.652	894.652	1.494.122	8.979,85	% 167,01
6. Inbertsio errealak besterentzea	0	0	40.000	240,40	
7. Kapital transferentziak	20.960.582	20.960.582	11.921.398	71.649,04	% 56,88
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
Dirusarrerak, guztira	44.560.040	44.560.040	37.681.623	226.471,12	% 84,56

Gastuen kapituluak	Aurrekontua (pezetak)		Aitorturiko obligazioak		Betetzea %
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	
1. Langileen ordainsariak	2.554.651	2.554.651	2.311.034	13.889,59	% 90,46
2. Ondasun err. eta zerb. erostea	7.511.750	7.511.750	7.820.182	47.000,24	% 104,11
3. Korrituak	0	0	0	0,00	
4. Transferentzia arruntak	4.065.391	4.065.391	4.218.434	25.353,30	% 103,76
6. Inbertsio errealak	43.895.529	43.895.529	32.239.247	193.761,78	% 73,45
7. Kapital transferentziak	0	0	0	0,00	
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	545.864	545.864	545.864	3.280,71	
Gastuak, guztira	58.573.185	58.573.185	47.134.761	283.285,62	% 80,47

Aldeak	-14.013.145	-14.013.145	-9.453.138	-56.814,50	
---------------	--------------------	--------------------	-------------------	-------------------	--

Ignacio Cabeza del Salvador auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

X. OTSAGABIKO UDALA

X.1. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Otsagabiko Udalaren 1998ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aztertu dugu.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeke Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta -prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau agertuko dugu:

X.1.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionez

Honekin batera doa 1998ko aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko azalpena, eta behar bezala erakusten ditu fiskalizaturiko ekitaldian Udalak egindako eragiketak, salbu eta kobratzeke dauden likidaturiko eskubideetako gehiegiz-

ko 1,8 milioi, oihaneko lan batzuen dirulaguntza birritan erregistratzeari zor zaikionak⁽¹⁾.

X.1.2. Ondare-egoeraren agerpena

Ondare-kontabilitaterik ezak eta udal inbentarioa –1994koa– gaurkotu gabe egoteak ezinezko egiten digute Udalaren 1998ko abenduaren 31ko ondare-egoerari buruzko iritzia ematea.

X.1.3. Legezketasuna

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz burutu da, nahiz eta aurrekontu alorreko hainbat ez-betetze antzeman diren, batez ere gastuetarako kredituen mugak ez direlako beti errespetatzen.

X.1.4. Egoera ekonomiko-finantzarioa

Otsagabiko Udalak behar den moduko finantza-egoera du 1998ko abenduaren 31n. Diruzaintza-gerakina 31 milioikoa da, aurrezki garbia 12 milioikoa eta epe luzeko zorra, aldiz, 46 milioikoa.

Laburtuz, eta **ondorio nagusi gisa**, esan genezake Otsagabiko Udalak honako hau egiten duela:

- Aurrekontuak modu egokian kudeatzen ditu, administrazio-ikuspegi batetik begiraturaz, baina beharrezko du:

a) Kontabilitate sistema osatu, udal errealitatearen ikuspegi osoa ahalbidetzeko.

b) Aurrekontutze-teknikak hobetzea, aurrekontuan jasotako aurreikuspenak benetan bete ahal izateko, inbertsio errealak eta kapital-transferentzietakoak bereziki.

c) Beharrezkoak diren prozedurak ezartzea aurrekontu-kreditu nahiko dagoela egiaztatuz, gastu-obligazio bat aitortu edo indarreko legeriaren araberrako aurrekontu-aldaketak egin baino lehen.

d) Aurrekontua egin eta hura likidatzean, dirusarrerak eta gastuak sailkatzeko irizpideak modu bateratuan aplikatzea, zehazki kapital-transferentziatik aitorturiko obligazioak, inbertsio errealak bailiren sartu baitira aurrekontuan.

e) Organo eskudunak onetsi behar ditu tributukontzeptuen erroldak; horretaz gain, egin beharreko argitalpen-iragarkiak egin behar dira, kobratzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, legez ezarritako korrituak eta ginkargua ezarriko dira.

- Finantzen ikuspuntutik, behar den moduko egoera du, aurrezki garbia eta diruzaintza-gerakina adierazgarriak baitira.

X.2. FINANTZEI BURUZKO EGOERA-ORRIAK

1998ko ekitaldiko aurrekontuaren kitapena

Dirusarreraren kapituluak	Aurrekontua (pezetatan)		Kitaturiko eskubideak		Betetzea %
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	
1. Zuzeneko zergak	6.820.000	6.820.000	5.848.510	35.150,25	% 85,76
2. Zeharkako zergak	4.600.000	4.600.000	4.933.765	29.652,52	% 107,26
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	19.260.000	19.260.000	18.371.840	110.416,98	% 95,39
4. Transferentzia arruntak	34.050.000	34.050.000	29.921.294	179.830,60	% 87,87
5. Ondare bidezko dirusarrerak	6.900.000	6.900.000	5.860.920	35.224,84	% 84,94
6. Inbertsio errealak besterentzea	0	0	0	0,00	
7. Kapital transferentziak	15.600.000	15.840.000	10.919.719	65.628,83	% 68,94
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
Dirusarrerak, guztira	87.230.000	87.470.000	75.856.048	455.904,03	% 86,72

(1) 1999an zuzendua.

Gastuen kapituluak	Aurrekontua (pezetak)		Aitorturiko obligazioak		Betetzea %
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	
1. Langileen ordainsariak	14.150.000	14.150.000	13.953.240	83.860,66	% 98,61
2. Ondasun err. eta zerb. erostea	16.995.000	16.995.000	19.924.226	119.747,01	% 117,24
3. Korrituak	2.756.000	2.756.000	2.650.345	15.928,89	
4. Transferentzia arruntak	15.610.000	15.610.000	13.439.927	80.775,59	% 86,10
6. Inbertsio errealak	57.575.000	57.575.000	13.209.744	79.392,16	% 22,85
7. Kapital transferentziak	0	0	15.491.767	93.107,39	
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	4.115.000	4.115.000	3.035.224	18.242,06	
Gastuak, guztira	111.201.000	111.201.000	81.704.473	491.053,77	% 73,32

Aldeak	-23.971.000	-23.971.000	-5.848.425	-35.149,74	
---------------	--------------------	--------------------	-------------------	-------------------	--

Ignacio Cabeza del Salvador auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

XI. ORONTZEKO UDALA

XI.1. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Orontzeko Udalaren 1998ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aztertu dugu.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeke Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta -prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspeneren ondorio gisa, honako iritzi hau agertuko dugu:

XI.1.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionez

Honekin batera doa 1998ko aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko azalpena, eta behar bezala erakusten ditu fiskalizaturiko ekitaldian Udalak egindako eragiketak, sortzapen printzipioa modu sistematikoan aplikatu ez dela salbuetsita.

XI.1.2. Ondare-egoeraren agerpena

Ondare-kontabilitaterik ezak eta udal inbentarioa –1994koa– gaurkotu gabe egoteak ezinezko egiten digute Udalaren 1998ko abenduaren 31ko ondare-egoerari buruzko iritzia ematea.

XI.1.3. Legezketasuna

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz burutu da, nahiz eta aurrekontu alorreko hainbat ez-betetze antzeman diren, batez ere gastuetarako kredituen mugak ez direlako beti errespetatzen.

XI.1.4. Egoera ekonomiko-finantzarioa

Orontzeko Udalak behar den moduko finantza-egoera du 1998ko abenduaren 31n. Diruzaintzagerakina 3 milioikoa da, aurrezki garbia 2 milioikoa eta epe luzeko zorra, aldiz, 11 milioikoa.

Laburtuz, eta **ondorio nagusi gisa**, esan genezake Otsagabiko Udalak honako hau egiten duela:

- Aurrekontuak modu egokian kudeatzen ditu, administrazio-ikuspegi batetik begiraturik, baina beharrezko du:

a) Kontabilitate sistema osatu, udal errealitatearen ikuspegi osoa ahalbidetzeko.

b) Gastu-dirusarreraren sortzapen printzipioa zuzen aplikatzea, alegia, egiten direnean kontabilizatu, eta ez ordaindu edo kobratzen direnean.

c) Aurrekontutze-teknikak hobetzea, aurrekontuan jasotako aurreikuspenak benetan bete ahal izateko, inbertsio errealitatekoak eta kapital-transferentzietakoak bereziki.

d) Beharrezkoak diren prozedurak ezartzea aurrekontu-kreditu nahiko dagoela egiaztatzeko, gastu-obligazio bat aitortu edo indarreko legeriaren arabera aurrekontu-aldaketak egin baino lehen.

e) Organo eskudunak onetsi behar ditu tributu-kontzeptuen erroldak; horretaz gain, egin beharreko argitalpen-iragarkiak egin behar dira, kobratzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, legez ezarritako korrituak eta gainkargua ezarriko dira.

f) Oihan aprobetxamenduen zenbatekoa hone-la kontabilizatu behar da: aitorturiko eskubide bezala, esleipenaren ulean.

- Finantzen ikuspuntutik, behar den moduko egoera du, zorpetze maila handia izaki diruzaintza-gerakin nahikoa baitu.

XI.2. FINANTZEI BURUZKO EGOERA-ORRIAK

1998ko ekitaldiko aurrekontuaren kitapena

Dirusarreraren kapituluak	Aurrekontua (pezetatan)		Kitaturiko eskubideak		Betetzea %
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	
1. Zuzeneko zergak	558.362	558.362	545.009	3.275,57	% 97,61
2. Zeharkako zergak	466.053	466.053	997.212	5.993,36	% 213,97
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	2.511.885	2.511.885	2.714.390	16.313,81	% 108,06
4. Transferentzia arruntak	1.122.101	1.122.101	1.443.327	8.674,57	% 128,63
5. Ondare bidezko dirusarrerak	28.479	28.479	93.370	561,17	% 327,86
6. Inbertsio errealak besterentzea	0	0	0	0,00	
7. Kapital transferentziak	200.000	200.000	17.234.648	103.582,32	% 8.617,32
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
Dirusarrerak, guztira	4.886.880	4.886.880	23.027.956	138.400,80	% 471,22

Gastuen kapituluak	Aurrekontua (pezetak)		Aitorturiko obligazioak		Betetzea %
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	
1. Langileen ordainsariak	318.883	318.883	276.535	1.662,01	% 86,72
2. Ondasun err. eta zerb. erostea	1.795.423	1.795.423	2.025.840	12.175,54	% 112,83
3. Korrituak	0	0	671.000	4.032,79	
4. Transferentzia arruntak	1.724.894	1.724.894	928.577	5.580,86	% 53,83
6. Inbertsio errealak	387.680	387.680	17.794.421	106.946,62	% 4.589,98
7. Kapital transferentziak	0	0	0	0,00	
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	660.000	660.000	0	0,00	
Gastuak, guztira	4.886.880	4.886.880	21.696.373	130.397,83	% 443,97

Aldeak	0	0	1.331.583	8.002,98	
---------------	----------	----------	------------------	-----------------	--

Ignacio Cabeza del Salvador auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

XII. SARTZEKO UDALA

XII.1. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Sartzeko Udalaren 1998ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aztertu dugu.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta -prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau agertuko dugu:

XII.1.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionez

Honekin batera doa 1998ko aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko azalpena, eta behar bezala erakusten ditu fiskalizaturiko ekitaldian Udalak egindako eragiketak, sortzapen printzipioa modu sistematikoan aplikatu ez dela salbuetsita, baina horrek ez dio eragiten Udalak garatu duen jardueraren informazioari.

XII.1.2. Ondare-egoeraren agerpena

Ondare-kontabilitaterik ezak eta udal inbentarioa –1994koa– gaurkotu gabe egoteak ezinezko egiten digute Udalaren 1998ko abenduaren 31ko ondare-egoerari buruzko iritzia ematea.

XII.1.3. Legezketasuna

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz burutu da.

XII.1.4. Egoera ekonomiko-finantzarioa

Sartzeko Udalak behar den moduko finantza-egoera du 1998ko abenduaren 31n, zorrik gabea; diruzaintza-gerakina, aldiz, 3 milioikoa da.

Laburtuz, eta **ondorio nagusi gisa**, esan genezake Sartzeko Udalak honako hau egiten duela:

- Aurrekontuak modu egokian kudeatzen ditu, administrazio-ikuspegi batetik begiraturaz, baina beharrezko du:

- a) Kontabilitate sistema osatu, udal errealitatearen ikuspegi osoa ahalbidetzeko.

- b) Gastu-dirusarreraren sortzapen printzipioa zuzen aplikatzea, alegia, egiten direnean kontabilizatu, eta ez ordaindu edo kobratzen direnean.

- c) Beharrezkoak diren prozedurak ezartzea aurrekontu-kreditu nahiko dagoela egiaztatzeko, gastu-obligazio bat aitortu edo indarreko legeriaren arabera aurrekontu-aldaketak egin baino lehen.

- d) Aurrekontutze-teknikak hobetzea, aurrekontuan jasotako aurreikuspenak benetan bete ahal izateko, kontusailen betetze-portzentajeen arteko aldeak gutxitzearen.

- e) Organo eskudunak onetsi behar ditu tributukontzeptuen erroldak; horretaz gain, egin beharreko argitalpen-iragarkiak egin behar dira, kobratzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, legez ezarritako korrituak eta gainkargua ezarriko dira.

- Finantzen ikuspuntutik, behar den moduko egoera du.

XII.2. FINANTZEI BURUZKO EGOERA-ORRIAK

1998ko ekitaldiko aurrekontuaren kitapena

Dirusarreraren kapituluak	Aurrekontua (pezetatan)		Kitaturiko eskubideak		Betetzea %
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	
1. Zuzeneko zergak	712.000	712.000	678.115	4.075,55	% 95,24
2. Zeharkako zergak	414.209	414.209	510.092	3.065,71	% 123,15
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	209.968	209.968	185.024	1.112,02	% 88,12
4. Transferentzia arruntak	868.000	868.000	1.526.387	9.173,77	% 175,85
5. Ondare bidezko dirusarrerak	10.803	10.803	39.543	237,66	% 366,04
6. Inbertsio errealak besterentzea	0	0	0	0,00	
7. Kapital transferentziak	2.868.000	2.868.000	1.244.561	7.479,96	% 43,39
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
Dirusarrerak, guztira	5.082.980	5.082.980	4.183.722	25.144,68	% 82,31

Gastuen kapituluak	Aurrekontua (pezetak)		Aitorturiko obligazioak		Betetzea %
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	
1. Langileen ordainsariak	1.442.958	1.442.958	1.334.615	8.021,20	% 92,49
2. Ondasun err. eta zerb. erostea	230.000	230.000	93.616	562,64	% 40,70
3. Korrituak	1.000	1.000	0	0,00	
4. Transferentzia arruntak	541.022	541.022	367.635	2.209,53	% 67,95
6. Inbertsio errealak	2.868.000	2.868.000	1.244.561	7.479,96	% 43,39
7. Kapital transferentziak	0	0	0	0,00	
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
Gastuak, guztira	5.082.980	5.082.980	3.040.427	18.273,33	% 59,82

Aldeak	0	0	1.143.295	6.871,34	
---------------	----------	----------	------------------	-----------------	--

Ignacio Cabeza del Salvador auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatze Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta -prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau agertuko dugu:

XII.1.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionez

Honekin batera doa 1998ko aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko azalpena, eta behar bezala erakusten ditu fiskalizaturiko ekitaldian Zaraitzuko Batzarre Nagusiak egindako eragiketak, baina halere:

XIII. ZARAITZUKO BATZARRE NAGUSIA

XII.1. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Zaraitzuko Batzarre Nagusiaren 1998ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aztertu dugu.

- Ez da sortzaren printzipioa modu sistemati-koan aplikatu ekitaldia ixtean, dirusarrera gisa erregistratu baitira 1999an sortutako 32 milioi.

- Ekitaldiko aurrekontuaren likidazioan, jasotako fidantza gisa sartu du Batzarreak 6 milioiko zenbateko bat.

XII.1.2. Ondare-egoeraren agerpena

Ondare-kontabilitaterik ezak eta udal inbentarioa –1993koa– gaurkotu gabe egoteak ezinezko egiten digute Udalaren 1998ko abenduaren 31ko ondare-egoerari buruzko iritzia ematea.

XII.1.3. Legezkotasuna

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz burutu da.

XII.1.4. Egoera ekonomiko-finantzarioa

Zaraitzuko Batzarre Nagusiak behar den moduko finantza-egoera du 1998ko abenduaren 31n; izan ere, aurrezki garbia 103 milioi pezeta-koa da, diruzaintza-gerakina 216 milioikoa eta epeluzeko zorra, aldiz, 17 milioikoa.

Laburtuz, eta **ondorio nagusi gisa**, esan genezake Zaraitzuko Batzarre Nagusiak honako hau egiten duela:

- Aurrekontuak modu egokian kudeatzen ditu, administrazio-ikuspegi batetik begiraturaz, baina beharrezko du:

a) Kontabilitate sistema osatu, Batzarrearen errealitatearen ikuspegi osoa ahalbidetzeko.

b) Gastu-dirusarreraren sortzaren printzipioa zuzen aplikatzea, alegia, egiten direnean kontabilizatu, eta ez ordaindu edo kobratzen direnean.

c) Aurrekontutze-teknikak hobetzea, aurrekontuan jasotako aurreikuspenak benetan bete ahal izateko, batez ere inbertsio errealean zein transferentzien alorretakoak.

d) Inbertsio errealei atxikitako dirulaguntzen transferentziak dirusarreraren 7. kapituluaren –"Kapital transferentziak"– sailkatzea.

e) Aurrekontuz kanpoko kontuetan kontabilizatzeko Gizarte Segurantza zein PFEZ direla-eta langilearen kargura egindako atxikimenak eta jasotako fidantzak.

f) Oihan aprobetxamenduen zenbatekoa hone-la kontabilizatu behar da: aitorturiko eskubide bezala, esleipenaren ulean.

- Finantzen ikuspuntutik, egoera oso saneatua du, ia zorrik ere ez baitu (% 0,8) eta diruzaintza-gerakina adierazgarria baita.

XIII.2. FINANTZEI BURUZKO EGOERA-ORRIAK

1998ko ekitaldiko aurrekontuaren kitapena

Dirusarreraren kapituluak	Aurrekontua (pezetatan)		Kitaturiko eskubideak		Betetzea %
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	
1. Zuzeneko zergak	0	0	0	0,00	
2. Zeharkako zergak	0	0	0	0,00	
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	86.091.443	86.091.443	1259.579.278	778.787,15	% 150,51
4. Transferentzia arruntak	93.066.684	93.066.684	65.247.602	392.145,99	% 70,11
5. Ondare bidezko dirusarrerak	7.000.000	7.000.000	7.069.949	42.491,25	% 101,00
6. Inbertsio errealak besterentzea	0	0	0	0,00	
7. Kapital transferentziak	0	0	0	0,00	
8. Finantza-aktiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
9. Finantza-pasiboen aldaketa	0	0	0	0,00	
Dirusarrerak, guztira	186.158.127	186.158.127	201.896.829	1.213.424,38	% 108,45

Gastuen kapituluak	Aurrekontua (pezetak)		Aitorturiko obligazioak		Betetzea %
	Hasierakoa	Behin betikoa	Pezetak	Euroak	
1. Langileen ordainsariak	65.710.000	65.710.000	54.324.803	326.498,64	% 82,67
2. Ondasun err. eta zerb. erostea	48.172.069	48.172.069	21.749.126	130.714,88	% 45,15
3. Korrituak	300.000	300.000	58.234	349,99	% 19,41
4. Transferentzia arruntak	58.008.156	58.008.156	21.467.024	129.019,41	% 37,01
6. Inbertsio errealak	177.178.594	177.178.594	52.207.277	313.772,05	% 29,47
7. Kapital transferentziak	0	0	0	0,00	
8. Finantza-aktiboan aldaketa	0	0	0	0,00	
9. Finantza-pasiboan aldaketa	1.673.282	1.673.282	1.550.954	9.321,42	% 92,69
Gastuak, guztira	351.042.101	351.042.101	151.357.418	909.676,40	% 43,12
Aldeak	-164.883.974	-164.883.974	50.539.411	303.747,98	

Ignacio Cabeza del Salvador auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Zaraitzu Ibarreko toki zerbitzu publikoak emateko gastuen arrazoizkotasun ekonomikoari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urtarrilaren 25ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak Zaraitzu Ibarreko toki zerbitzu publikoak emateko gastuen arrazoizkotasun ekonomikoari buruz egindako fiskalizazio-txostena argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Zaraitzu Ibarreko toki zerbitzu publikoak emateko gastuen arrazoizkotasun ekonomikoari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (21. or.).

II. Helburua (21. or.).

III. Norainokoa eta mugak (21. or.).

IV. Ibarreko udalek eta Batzarre Nagusiak emandako zerbitzu publikoen azterketa (22. or.).

IV. 1. Hezkuntza (23. or.).

IV.2. Gizarte Zerbitzuak (24. or.).

IV.3. Hiri hondakin solidoak (24. or.).

IV.4. Ur horniketa (25. or.).

IV.5. Kirolak (26. or.).

IV.6. Kultura (27. or.).

IV.7. Mendiak (28. or.).

IV.10. Egitura (28. or.).

V. Ondorioak eta gomendioak (30. or.).

I. SARRERA

Zaraitzu ibarra Nafarroako iparraldean dago, Iruñetik 80 kilometrotara, eta ondokoek osatzen dute: Espartza-Zaraitzu (122 biztanle), Ezkaroze (366 biztanle), Galoze (122 biztanle), Gorza (79 biztanle), Itzaltzu (52 biztanle), Jaurrieta (264 biztanle), Otsagabia (680 biztanle), Orontze (61 biztanle), Sartze (79 biztanle) eta Zaraitzuko batzarre Nagusia.

Bederatzi herri horiek osatzen dute Zaraitzuko Mankomunitatea. Hura osatzen duten ondasun guztien ordezkari eta administratzailea Zaraitzuko Batzarre Nagusia da.

Txosten honekin, Kontuen Ganbarak buru ematen dio Zaraitzu ibarreko azterketari; izan ere, osatu egiten baitu 1998ko aurrekontuen gaineko fiskalizazio finantzarioaren lana, eta lehenbiziko aldiz ematen du ikuspegi orokor bat Ibarreko toki entitateek garatu dituzten jardueren eta haien arazoizkotasunari buruz.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legeari, Nafarroako Toki Administrazioako uztailaren 2ko 6/90 Foru Legeari, eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Ibarreko udalek eta Batzarre Nagusiak emandako zerbitzu publikoen azterketari ekin diogu.

Lan honek helburu bikoitza du:

a) Zaraitzu Ibarra osatzen duten toki entitate bakoitzak ematen dituen zerbitzu publiko oinarrikoen kostua finkatu, aztertu eta zenbatestea.

b) Aurreko diagnostikoa gogoan, eta kudeaketa publikoan lehenetsi behar den arrazionaltasun hatsapena aintzat hartuta, gomendio eta iradokizun zenbait proposatzea, zerbitzu publikoak kostua eta kalitate-maila egokia uztartuz emateko.

Txosten honek, ostera, ez du Ibarreko zerbitzuak ematea berrantolatzeke proposamen zehatzak landu eta taxutzea helburu; izan ere, zerikusia duten entitate eta herritarrei baino ez dagokien erabakia delakoan baikaude.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK.

Espartza-Zaraitzu, Ezkaroze, Galoze, Gorza, Itzaltzu, Jaurrieta, Otsagabia, Orontze eta Sartze-ko udalek eta Zaraitzuko Batzarreak ematen dituzten zerbitzuen arazoizkotasunari buruzko azterketa jasotzen da ondoren aurkeztuko dugun txosten honek.

Udalek zein Batzarreak eman eta Ibarreko herritarrek bere esku dituzten prestazio eta jarduerak jo ditugu zerbitzutat.

Entitate txikiak direnez, zail da zerbitzuak aztertu eta identifikatzea; hori dela eta, hurrengo oinarriko zerbitzuak aztertu ditugu txosten honetan: Hezkuntza, Gizarte Zerbitzuak, Hiri hondakin solidoak, Ur horniketa, Kirolak, Kultura, Mendiak eta Egitura.

Aurrekontu-kontabilitatetik atera ditugu zerbitzu bakoitzari egotzitako kostuak, egitura-banaketak eta amortizazioen kalkulua kontuan izan gabe.

Aztertu ditugun gainerako zerbitzuei ezin egotzizko gastuak jo ditugu egituratuz.

Azterlan hau burutzeko, Ibarreko udalek eta Batzarreak emandako informazioa kualitatiboa erabili dugu –elkarrizketak egin ditugu–, ohiko gastuei buruzko informazio kuantitatiboarekin batera, kontabilitate-erregistroetatik atera.

Hurrengoek baldintzatu edo mugatu dute txosten hau:

- Saillapen funtzionalaren garapena kapituluka egiten da, eta horrek zaildu egiten du zerbitzuko kostua ateratzea.

- Entitate bakoitzaren aurrekontuak murrizak dira, eta zail egiten da gastuak zerbitzuei egotea.

- Amortizazioak dira zerbitzuen kostuaren funtsezko zati bat. Eguneratutako inbentariarik ez dagoenez, ezin izan zaizkio amortizazio horiek zerbitzu bakoitzari egotzi; ondorioz, zerbitzu bakoitzaren amortizazioak kontuan hartuz gero, kostuen kalkulua nabarmen alda daiteke.

- Langileen dedikazioa kontrolatzeko sistemarik ez dagoenez, ezinezko da entitateotan zerbitzuak ematen dituzten pertsonen egotea dakiekeen denbora era fidagarrian banatzea; ondorioz, egituratuz jo ditugu langileen gastuak, funtsean.

Bi arlo nagusitan egituratu dugu txostena: lehenbizikoan, aztertu ditugun zerbitzuen kostua finkatu eta zenbatetsi dugu; bigarrenetan, hainbat ondorio eta gomendio atera dugu.

Azterketa lana 1998ko ekaina eta iraila bitartean egin da.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Ibarreko udalen eta Batzarre Nagusiaren langile guztiei, beraien lankidetzak gure lana erraztu egiten duelako.

IV. IBARREKO UDALEK ETA BATZARRE NAGUSIAK EMANDAKO ZERBITZU PUBLIKOEN AZTERKETA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 29 eta 31. artikuluen arabera, Nafarroako udalerriek eskumen batzuk dituzte, eta zerbitzu batzuk eman behar dituzte; hain zuzen ere, lege-dia orokorrak gutxienez ezarri dituen haiek.

Hartara, Toki-Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak agintzen duenaren arabera, herritarren beharrezkoak betetzeko behar diren zerbitzuak sustatu eta eman behar ditu. Lege horren 25 eta 26. artikuluetan, hain zuzen ere, ondokoa ezartzen da:

25.1. Udalak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumen-esparruan, jarduera-mota guztiak bultzatu ditzake, eta herriaren beharrezkoak eta nahiak betetzen lagun dezakeen zerbitzu publiko oro egin.

2. Udalaren eskumenak, betiere Estatuko eta autonomia erkidegoetako legeen arabera, honako hauek dira:

- a) toki publikoetako segurtasuna;
- b) hiribideetan ibilgailuen eta gizakien ibilera arautzea;
- c) babes zibila, suteak eragozteak eta itzaltzea;
- d) hirigintzaren antolaketa, kudeaketa, exekuzioa eta diziplina; etxebizitzak sustatzea eta kudeatzea; parkeak eta lorategiak, hiribideen zoladura eta baserribide eta estartak zaintzea;
- e) ondare historiko-artistikoa;
- f) ingurumenaren babesa;
- g) hornigaiak, hiltegiak, azokak, merkatuak eta bezeroen eta kontsumitzaileen babesa;

- h) osasungarritasun publikoaren babesa;
- i) oinarrizko osasun-zerbitzuen kudeaketan parte hartzea;
- j) hilerriak eta hileta zerbitzuak;
- k) gizarte-zerbitzuak eta sustapenerako zein bergizarteratzeko zerbitzuak betetzea;
- l) ur-hornidura eta herriko argiak; kaleak garbitzeko, zaborrak biltzeko eta tratatzeko zerbitzuak, estolderia eta hondakin-urak tratatzeko zerbitzuak;
- m) gizakientzako garraio publikoa;
- n) kultura- eta kirol-jarduerak eta kultur etxe eta kiroldegia; astialdia betetzea; turismoa;
- n) irakaskuntza egitarautzen parte hartzea eta ikastetxe publikoak sortu, eraiki eta mantentzeko administrazioarekin elkarlanean aritzea; horien kudeaketa-organoetan esku hartzea eta derrigorrezko eskolatzea betetzeko zaintzan parte hartzea;

26.1. Udalek bakarrean edo elkarturik, honako zerbitzu hauek bete behar dituzte, betiere:

- a) udal guztietan: herriko argiak, hilerria, zabor-bilketa, kaleen garbiketa, edateko uraren etxez etxeko hornidura, estolderia, biztanlegunetako sarbideak, herribideen zoladura eta janari-edariaren kontrola.

Ibarreko udal guztiek ematen dituzte legearen aginduz eman beharreko gutxienezko zerbitzuak; dena den, txosten honetan egituratzen hartu dira horietako batzuk.

Hurrengo orrialdeetako laukietan, aztertutako zerbitzuen gastu eta dirusarreraren laburpenak ematen ditugu.

Gastuak

Entitatea	Hezkuntza	Gizarte zerbitzuak	Hiri hondakin solidoak	Ur hornidura	Kirolak	Kultura	Mendiak	Egitura	Guztira
Espartza-Zaraitzu	0	0	624.624	0	0	3.675.290	1.493.576	4.628.679	10.422.169
Ezkaroze	300.000	0	1.812.213	406.902	0	4.839.482	3.944.561	12.734.556	24.037.714
Galoze	0	0	432.567	0	0	73.818	87.725	2.749.286	3.343.396
Gorza	0	0	229.068	0	0	0	0	1.705.950	1.935.018
Itzaltzu	0	0	490.485	0	0	612.444	1.538.013	1.613.963	4.254.905
Jaurrieta	0	0	1.767.800	500.000	0	3.292.003	3.084.188	9.258.847	17.902.838
Otsagabia	2.502.288	0	4.120.116	1.215.385	1.833.731	7.759.739	2.441.312	29.880.890	49.753.461
Orontze	0	0	337.667	255.929	0	727.967	581.674	2.821.602	4.724.839
Sartze	0	0	185.024	0	0	0	0	1.610.842	1.795.866
Zaraitzuko Batzar.	1.312.738	3.000.000	6.595.529	0	762.851	11.812.840	39.364.271	30.729.940	93.578.169
Guztira	4.115.026	3.000.000	16.595.093	2.378.216	2.596.582	32.793.583	52.535.320	97.734.555	211.748.375

Dirusarrerak

Entitatea	Hezkuntza	Gizarte zerbitzuak	Hiri hondakin solidoak	Ur hornidura	Kirolak	Kultura	Mendiak	Egitura	Guztira
Espartza-Zaraitzu	0	0	626.164	160.767	0	0	6.744.883	5.471.550	13.003.364
Ezkaroze	0	0	1.828.273	1.594.806	0	787.505	8.973.442	19.661.655	32.845.681
Galoze	0	0	412.664	10.000	0	0	1.100.166	5.751.286	7.274.116
Gorza	0	0	229.078	0	0	0	0	2.736.068	2.965.146
Itzaltzu	0	0	407.541	238.468	0	0	0	4.645.107	5.291.116
Jaurrieta	0	0	1.258.088	1.089.578	0	128.250	7.749.955	14.790.040	25.015.911
Otsagabia	1.970.471	0	4.582.492	2.128.411	5.464.636	476.067	10.489.704	39.610.271	64.722.052
Orontze	0	0	366.773	111.797	0	166.000	1.537.007	3.327.315	5.508.892
Sartze	0	0	185.024	0	0	0	0	2.754.137	2.939.161
Zaraitzuko Batzarrea	0	0	128.120	0	775.012	4.475.962	151.515.065	17.070.929	173.965.088
Guztira	1.970.471	0	10.024.217	5.333.827	6.239.648	6.033.784	188.110.222	115.818.358	333.530.527

Ondoren, banan-banan garatuko ditugu aztertu ditugun zerbitzuak.

IV.1. HEZKUNTZA

Toki-Jaurlanaren Oinarriak arautzen dituen Legeak ezartzen du udalek irakaskuntza egitarautzen parte hartuko dutela, bai eta ikastetxe publikoak sortu, eraiki eta mantentzeko administrazioarekin elkarlanean aritu, horien kudeaketa-

organoetan esku hartu eta derrigorrezko eskola-tzea betetzeko zaintzan parte hartu ere.

Ikastetxeak Ezkaroze eta Otsagabian metatu dira. Ezkarozeko ikastetxe publikoan lehen hezkuntza irakasten da, eta Otsagabikoan lehen eta bigarren hezkuntza. Ezkarozekoan 14 ikasle daude, eta Otsagabian, aldiz, 80.

Ondoko laukian azaltzen dira udal bakoitzaren gastuak eta dirusarrerak.

Udalak	Gastuak	irusarrerak	Aldea
Ezkaroze	300.000	0	-300.000
Otsagabia	2.502.288	1.970.471	-531.817
Zaraitzuko Batzarrea	1.312.738	0	-1.312.738
Guztira	4.115.026	1.970.471	-2.144.555

Bi udalerriotan jasotako gastuak instalazioak zaindu eta mantentzeari dagozkio, funtsean (gasolioa, argia, telefonoa eta abar).

Otsagabiko Udalaren dirusarrerak Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntza bati dagozkio. Eskola-kontzentrazioagatik, eta eskolak emateko instalazioen funtzionamendua, zaintza eta garbi-kegatik ematen da aipatu dirulaguntza.

IV.2. GIZARTE ZERBITZUAK

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak hartu ditu bere gain gizarte zerbitzuak, eta haren kostua, berriz, Zaraitzuko Batzarre Nagusiak.

Zazpi pertsonak ematen dute zerbitzua: gizarte langile batek (lanaldi osoa), bost familia-langilek (lanaldiaren erdia) eta administrari laguntzaile batek (lanaldi erdia).

Zaraitzuko Batzarreak oinarrizko gizarte zerbitzurako egindako ekarpena 3.000.000 pezetakoa izan da 1998an. Ezkarozeko idazkariak esan digun legez, Mankomunitatearen gainontzeko gastuak Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzekin zein etxez etxeko laguntza zerbitzuko tasekin finantzatzen da.

IV.3. HIRI HONDAKIN SOLIDOAK

Ezka-Zaraitzuko Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatean bildu dira Zaraitzu Ibarreko udalak hiri hondakin solidoak bildu eta tratatzeko zerbitzua emateko.

Tarifa berberak erabiltzen dira udal guztietan, eta Mankomunitateak finkatzen ditu, establezimendu moten arabera.

Hiri hondakin solidoak edukiontzietatik biltzen dira, astean birritan, uztail-abuztuan izan ezik, astean hiru aldiz jasotzen baitira.

Hiri hondakin solidoak Aizpurgiko udalerriko hondakindegian uzten dira.

Udalek kobraketaren kudeaketa besterik ez dute egiten, eta beraien gain hartzen dute zergadunen berankortasuna. Fakturazioa urtero egin ohi dute.

Ondoko laukian biltzen dira udal bakoitzaren gutxi gorabeherako ordainagiri-kopurua eta helbideratze-portzentajea.

Udala	Zenbat ordainagiri	Helbideratze %
Espartza-Zaraitzu	50	% 15,00
Ezkaroze	185	% 80,00
Galoze	75	% 85,00
Gorza	30	% 75,00
Itzaltzu	35	% 80,00
Jaurrieta	130	% 10,00
Otsagabia	383	% 85,00
Orontze	28	% 100,00
Sartze	15	% 85,00

Mankomunitateak erabakitzen du udal bakoitzak jarri behar duen dirua, horietako bakoitzean dauden etxebizitzak eta bestelako establezimenduen kopuruaren arabera.

Ondoko laukian jarriko ditugu Udal bakoitzaren gastu-dirusarrerak:

Udala	Gastua	Dirusarrera	Aldea
Espartza-Zaraitzu	624.624	626.167	1.540
Ezkaroze	1.812.213	1.828.273	16.060
Galoze	432.567	412.664	-19.903
Gorza	229.068	229.078	10
Itzaltzu	490.485	407.541	-82.944
Jaurrieta	1.767.800	1.258.088	-509.712
Otsagabia	4.120.116	4.582.492	462.376
Orontze	337.667	366.773	29.106
Sartze	185.024	185.024	0
Zaraitzuko Batzarrea	6.595.529	128.120	-6.467.409
Guztira	16.595.093	10.024.217	-6.570.876

Udaletan agertzen den gastuen eta dirusarren arteko aldea erreziboen kobraketan gertatzen diren desfaseei zor zaie. Zaraitzuko batzarre Nagusiak ibarreko bizatzenleen errezibuko % 80ko dirulaguntza ematen du.

Likidazioetan jasotako gastua Mankomunitatearen funtzionamendurako aportazioei dagokie.

IV.4. UR-HORNIKETA

Banaka ematen du udal bakoitzak ur-horniketaren zerbitzua.

Ezkarozen izandako arazoak gainditu ondoren, batere arazorik gabe ematen dute udal guztiek ur-horniketaren zerbitzua. Itzaltzu, Otsagabia, Ezkaroze, Orontze, Espartza-Zaraitzu eta Sartzeko Udalek Arratozko Ur Mankomunitatea osatzen dute, presio handiko ura hornitzeko.

Azken urteotan zehar, inbertsio-ahaleginean dihardute udalek ur-horniketaren eta saneamen-

duaren sareak egokitzeko. Otsagabiko horniketa sareak nahiko zaharrak dira, eta horren erruz ihesak gertatzen dira.

Itzaltzu eta Otsagabiko Udalek badute hondakin-uren araztegia. NILSAk finantzatzen ditu araztegiaren ustiapen-kostuak.

Horniketetatik eta saneamenduagatik kobratzen dituzten prezioak ez dira homogeneoak. Urari bagagozkio, oro har, jarritako kontadoreek azaltzen duten kontsumoaren arabera kobratzen dute, baina Galozen, esate baterako, ez dute kontadorerik eta zenbateko finkoak besterik ez dituzte kobratzen. Fakturazioa urtero egiten da.

Ondoko laukian agertuko ditugu kontsumo-prezioei, urteko kuota finkoari, saneamendu tasari, estolderiako zenbateko finkoari, ordainagirien kopuruari eta helbideratze-portzentajei buruzko datuak.

Udala	Kontsumo-prezioa (m ³)	Urteko kuota finkoa	Saneamendu tasa (m ³)	Estolderia	Ordainagiri kopurua	Helbideratzearen %
Espartza-Zaraitzu	12,0	1.000	26,6	0	65	% 15,00
Ezkaroze	45,0	2.000	26,6	0	192	% 0,00
Galoze	0,0	2.000	0,0	0	5	% 100,00
Gorza	0,0	0	0,0	0	0	% 0,00
Itzaltzu	30,2	0	0,0	4.000	34	% 80,00
Jaurrieta	40,0	1.000	0,0	500	117	% 50,00
Otsagabia	20,0	1.000	0,0	1.400	353	% 90,00
Orontze	20,0	200	26,7	0	30	% 100,00
Sartze	0,0	0	0,0	0	0	% 0,00

Ondoren adieraziko ditugu udal bakoitzaren gastu-dirusarrerak.

Udala	Gastua	Dirusarrera	Aldea
Espartza-Zaraitzu	0	160.767	160.767
Ezkaroze	406.902	1.594.806	1.187.904
Galoze	0	10.000	10.000
Itzaltzu	0	238.468	238.468
Jaurrieta	500.000	1.089.578	589.578
Otsagabia	1.215.385	2.128.411	913.026
Orontze	255.929	111.797	-144.132
Guztira	2.378.216	5.333.827	2.955.611

IV.5. KIROLAK

Ondoko laukian jarriko ditugu Zaraitzu Ibarrean dauden kirol instalazioak:

Entitatea	Frontoia		Kiroldegia	Igerilekua		Beste batzuk
	Estalia	Estaligabea		Arrunta	Ibaian	
Espartza-Zaraitzu	-	x	-	x	-	-
Ezkaroze	x	-	-	-	x	-
Galoze	-	-	-	-	-	-
Gorza	-	-	-	-	-	-
Itzaltzu	-	x	-	-	-	-
Jaurrieta	x	-	-	-	x	-
Otsagabia	x	-	-	-	x	-
Orontze	-	-	-	-	-	-
Sartze	-	-	-	-	-	-
Zaraitzuko Batzarrea						Eski-pista

Udalek kudeatzen dute kirolgintza, zuzenean kudeatu ere. Otsagabiko Udalean bada Kultura eta Kirol Batzordea, eta hura arduratzen da arlo horretaz.

Ondoren aurkezten dugun laukian ikus daitezke udal bakoitzaren gastu-dirusarrerak:

Udala	Gastua	Dirusarrera	Aldea
Otsagabia	1.833.731	5.464.636	3.630.905
Zaraitzuko Batzarrea	762.851	775.012	12.161
Guztira	2.596.582	6.239.648	3.643.066

Izabako (Erronkari Ibarra) eta Otsagabiko Udalen hitzarmen bat sinatu zuten Nafarroako Gobernuak Kirol eta Gazteriaren Institutuarekin, ikasleentzako ipar-eskiko kanpainak antolatu eta kudeatzeko Erronkari eta Zaraitzuko ibarretan. Kanpaina horiek kudeatzeko ardura Izabako Udalarena da.

Otsagabiko Udalaren dirusarrerak, funtsean, ipar-eskiko kanpainak antolatu eta kudeatzeagatik Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntzei zor zaizkie. Gastuak, aldiz, ibaiko igerileku eta frontoiaren funtzionamenduari eta mantenimenduari.

Eskiko pistak eta eskiarekin zerikusia duen jardueraren azpiegitura Ibarreko Batzarrearenak dira, eta ustiaketa partikular bati birkontratu zai. 1998ko kanona 775.012 pezetakoa izan da.

IV.6. KULTURA

Kulturaren kontzeptupean sartu dira turismoarekin, euskararekin, jaiekin, liburutegiekin eta kultur ekintzekin zerikusia dutenak.

Ibarra osatzen duten udal guztiak sartu dira Nafarroako Pirinioko Turismo Partzuergoan, turismoa sustatzeko jarduerak garatzeko ardura harena baita.

Turismoak, sektore ekonomikotzat hartzen badugu, berebiziko garrantzia hartu du ibarreko ekonomian, azken urteotan; nabaria da ostatu-egiturak, landa-etxeak eta kanpinak ugaritu egin direla.

Herriko zaindarien jaiez gain, herriko jaiek badute sustraia eta tradizioa, eta jende anitz erakartzen dute.

Euskararen arloko jarduerak Zaraitzun euskara arian-arian berreskuratzea du xede. Zaraitzuko Batzarre Nagusiak sustatzen ditu batez ere euskaraz egindako jarduerak, hala nola ikastaroak, antzerki tailerra, aldizkariak, katalogoak eta abar.

Liburutegirik ez egotea da ibarreko gabezieta-ko bat.

Ondoko laukian jarriko ditugu Udal bakoitzaren gastu-dirusarrerak:

Udala	Gastua	Dirusarrera	Aldea
Espartza-Zaraitzu	3.675.290	0	-3.675.290
Ezkaroze	4.839.482	787.505	-4.051.977
Galoze	73.818	0	-73.818
Itzaltzu	612.444	0	-612.444
Jaurrieta	3.292.003	128.250	-3.163.753
Otsagabia	7.759.739	476.067	-7.283.672
Orontze	727.967	166.000	-561.967
Zaraitzuko Batzarrea	11.812.840	4.475.962	-7.336.878
Guztira	32.793.583	6.033.784	-26.759.799

Honela banakatu dira gastuak: jaiak, turismo partzuergoaren ekarpenak, eta gainerakoak barne hartzen dituen beste kontzeptu bat. "Beste

batzuk" horren barruan, aipatzekoak dira Otsagabiko zein Espartza-Zaraitzuko kanpinetan egindako inbertsioak finantzatzeko finantza-gastuak.

Udala	Jaiak	Partzuergoa	Beste batzuk	Guztira
Espartza-Zaraitzu	1.628.044	84.349	1.962.897	3.675.290
Ezkaroze	4.070.372	589.110	180.000	4.839.482
Galoze	0	73.818	0	73.818
Itzaltzu	555.095	0	57.349	612.444
Jaurrieta	2.943.782	285.221	63.000	3.292.003
Otsagabia	4.712.772	290.514	2.756.453	7.759.739
Orontze	648.556	79.411	0	727.967
Zaraitzuko Batzarrea	2.587.738	0	9.225.102	11.812.840
Guztira	17.146.359	1.402.423	14.244.801	32.793.583

Batzarreko dirusarreraren artean, aipatzeko modukoa da Nafarroako Gobernuak euskara teknikariarengatik eta euskarazko jarduerengatik emandako dirulaguntza. Ezkarozeko dirusarrerak, funtsean, jaietako jardueretan bildutakoari zor zaizkio.

IV.7. MENDIAK

Zaraitzu Ibarreko udalek eta Ibarreko Batzarre-

ak baso-aberastasun handia dute, eta oinarritzko finantza-iturria da entitate horientzako.

31.000 hektarea inguruko azalera du Zaraitzu Ibarrek. Zaraitzuko Batzarraren jabetzapekoak dira ibarreko udaletan barrena banatutako 8.750 hektarea.

Ondoko laukian, entitate bakoitzak likidatutako gastuak eta dirusarrerak agertzen dira.

Udala	Gastuak	Dirusarrerak	Aldea
Espartza-Zaraitzu	1.493.576	6.744.883	5.251.307
Ezkaroze	3.944.561	8.973.442	5.028.881
Galoze	87.725	1.100.166	1.012.441
Itzaltzu	1.538.013	0	-1.538.013
Jaurrieta	3.084.188	7.749.955	4.665.767
Otsagabia	2.441.312	10.489.704	8.048.392
Orontze	581.674	1.537.007	955.333
Zaraitzuko Batzarrea	39.364.271	151.515.065	112.150.794
Guztira	52.535.320	188.110.222	135.574.902

Zerbitzu honetan aintzat hartu diren dirusarrek oihan-aprobetxamenduak kobratzetik datoz, funtsean, eta baita, belarretatik, ehiza-barrutietatik eta larreetatik. Mendiak hobetzearen Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntzak ere sartu ditugu hor.

Gasturik handienak langileei eta mendiak zein larreak hobetzearen jasotako zerbitzuei eta nekazaritzako gizarte segurantzari dagozkie.

IV.8. EGITURA

Lan honen III. idazatian iruzkindu bezala, Egituratzat hartu ditugu tamainagatik edo edukiagatik banakatzeko interesik ez zutenak, eta baita zerbitzu orokor edo administraziokoak ere, baldin eta aztertutako zerbitzuen baitan sartu edo banatu ezinekoak badira.

Ondorioz, gainerako zerbitzuetan sartu ez den gastu guztia bilduko da egitura kontzeptupean.

Langileak izanen dira udaletako egitura-zerbitzuaren osagarri nagusia: gastuaren %47 egiten baitu. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea da bigarren kapitulua, garrantziaren arabera: gastuaren %40.

Hona udaletako bakoitzean, egituratzat hartuta, zerbitzuan diharduten langileen zerrenda, 1998ko abenduaren 31ri buruzkoa:

Espartza-Zaraitzu

- Idazkaria (funtzionarioa), Galozen, Gorzan eta sartzen ere ari da.

Ezkaroze

- Idazkaria (administrazio kontratuduna), Jaurrietan eta Orontzen ari da.

- Zerbitzu anitzetako langilea (lan kontratuduna).

Galoze

- Idazkaria (funtzionarioa), Espartza-Zaraitzun, Gorzan eta Sartzen ere ari da.

Gorza

- Idazkaria (funtzionarioa), Espartza-Zaraitzun, Gorzan eta Sartzen ere ari da.

Itzaltzu

- Idazkaria (funtzionarioa, Nafarroako Gobernuarentzako zerbitzu berezietan), Otsagabian ere ari da.

- Ordezko idazkaria (administrazio kontratuduna), Ezkarozen eta Orontzen ere ari da.

- Zerbitzu anitzetako langilea (lan kontratuduna).

Jaurrieta

- Idazkaria (administrazio kontratuduna), Ezkarozen eta Orontzen ere ari da.

- Zerbitzu anitzetako langilea (lan kontratuduna).

Otsagabia

- Idazkaria (funtzionarioa, Nafarroako Gobernuarentzako zerbitzu berezietan), Itzaltzun ere ari da.

Zaraitzuko Batzarreak

- Ordezko idazkaria (administrazio kontratuduna), Itzaltzun ere ari da.

- Zerbitzu anitzetako langilea (funtzionarioa).

Orontze

- Idazkaria (administrazio kontratuduna), Ezkarozen eta Jaurrietan ere ari da.

Sartze

- Sartze

- Idazkaria (funtzionarioa), Espartza-Zaraitzun, Gorzan eta Galozen ere ari da.

Zaraitzuko Batzarre Nagusia

- Idazkaria (lan kontratuduna)

- Administrari laguntzailea (lanaldi erdirako lan kontratuduna).

Zaraitzu Ibarreko udaletan sortzen diren hiri-gintza-beharrizanei erantzuteko, kanpoko aholkulariak kontratatzen dira, sortzen den lanaren arabera.

Ezkaroze, Jaurrieta eta Orontzen batetik eta Otsagabian eta Itzaltzun bestetik, idazkari bakarra ari da, eta gastu hori langile-gastutzat hartzen da horietako batean eta transferentziatzat besteetan. Azterketa honen ondorioetarako, lan-gastutzat egotzi zaio bere zatia udal bakoitzari. Hona egindako birsailkapenak:

Udala	Zenbatekoa
Ezkaroze	-2.101.897
Itzaltzu	214.277
Jaurrieta	1.754.855
Otsagabia	-214.277
Orontze	347.042
Guztira	0

Ondoren azalduko dira egitura-gastuak, konzeptu ekonomikoka:

Udala	Langileen gastuak	Ondasun arr. eta zerb. erostea	Finantza gastuak	Transferentzia arruntak	Guztira
Espartza-Zaraitzu	2.794.784	1.659.510	0	174.385	4.628.679
Ezkaroze	6.298.049	6.015.583	0	420.924	12.734.556
Galoze	1.994.011	481.119	0	274.156	2.749.286
Gorza	1.241.887	301.895	0	162.168	1.705.950
Itzaltzu	418.503	1.078.822	0	116.638	1.613.963
Jaurrieta	4.065.889	4.782.400	0	410.558	9.258.847
Otsagabia	11.253.333	12.200.757	0	6.426.800	29.880.890
Orontze	623.577	1.362.568	671.000	164.457	2.821.602
Sartze	1.334.615	93.616	0	182.611	1.610.842
Zaraitzuko Batzarrea	16.085.419	10.677.960	58.234	3.908.327	30.729.940
Guztira	46.110.067	38.654.230	729.234	12.241.024	97.734.555
Esku-hart.	%47,18	%39,55	%0,75	%12,52	%100,00

Beste alde batetik, azterturiko zerbitzuetan kontuan hartu ez diren dirusarrera arruntak eraku-

tsiko ditu ondorengo laukiak, kontzeptuka eta entitateka:

Kontzeptua/ Udala	Espartza-Zaraitzu	Ezkaroze	Galoze	Gorza	Itzaltzu	Jaurrieta	Otsagabia	Orontze	Sartze	Zaraitzuko Batzarrea	Guztira
Zergak	1.542.987	6.522.367	2.818.843	985.808	1.471.126	5.209.924	10.782.275	1.542.221	1.188.207		32.063.758
Bestelako tasak eta dirusar.	186.593	1.148.388	137.972	104.035	547.136	1.065.724	1.171.233	265.600	0	1.625.033	6.251.714
Naf. zerg. esku-hart.	2.872.892	9.412.464	2.569.346	1.599.279	1.434.235	6.771.099	19.037.425	1.422.363	1.458.587		46.577.690
Bestelako transferentziak	344.539	307.473	49.836	34.408	254.094	249.171	2.758.418	20.964	67.800	8.247.116	12.333.819
Ondare bidezko best. dirusar.	473.289	1.265.805	175.289	12.538	487.516	1.175.289	378.202	76.167	39.543	7.069.949	11.153.587
Bestelako dirusarrerak	51.250	1.005.158	0	0	451.000	318.833	5.482.718	0	0	128.831	7.437.790
Guztira	5.471.550	19.661.655	5.751.286	2.736.068	4.645.107	14.790.040	39.610.271	3.327.315	2.754.137	17.070.929	115.818.358

V. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Atal honetan jarriko ditugu azterlanetik heldu diren ondorio eta gomendio nagusiak. Haiekin batera, toki sektore publikoan garatzen ari diren egoeraren eta joeren azterketa estrategikotik sortu direnak. Hori guztia, noski, burutu dugun azterlanaren norainokoa eta mugak kontuan izanda.

Zerikusia duten alderdi guztiak aztertu, hausnartu eta irizkidetzekoak dira ondoren azalduko ditugun gomendioak; ondorioz, eskura dauden baliabideen araberrako lehentasunak ezarri behar dira aurretik, eta auzoen jarrera ere aintzat hartu, orobat Ibarra osatzen duten toki entitateen erabakiak. Hori guztia, jakina, tokiko zerbitzu publikoen

kudeaketa hobe lortzeko asmoarekin, kalitate-kostu koordinatuen barruan emateko zerbitzuak.

1. Zaraitzu Ibarren antolamenduzko egitura politikoak –1.825 biztanle dira, bederatzi udaletan banatuak– baldintzatu egiten du zerbitzuen eskaintza, biztanleak gutxi direlako, eta azalera handia delako –310 km²–, orografia berezi baten baitan.

2. Gaur egun, aurreko toki entitateek ematen dituzten zerbitzuek 212 milioiko gastua egiten dute, hau da, 116.000 pezeta inguru, Ibarreko biztanle bakoitzeko.

Gastu horretatik, 98 milioi egitura-gastuak finantzatzeko dira –alegia, ehuneko 46–. Hurrengoie dagokie, funtsean, gastu hori: Administrazio-

ko langileei eta bestelako langileei –46 milioi–, eta ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuei –39 milioi–.

Aztertu ditugun gainerako zerbitzuen gastua 114 milioikoa da –hau da, gastu guztiaren ehuneko 54–. Ondoren zehaztuko ditugu, milioika eta ehunekotan:

Zerbitzua	Zenbat (milioitan)	Ehunekoa
Hezkuntza	4,1	3,61%
Gizarte Zerbitzuak	3,0	2,63%
Hiri hondakin solidoak	16,6	14,56%
Ur hornidura	2,4	2,09%
Kirolak	2,6	2,28%
Kultura	32,8	28,76%
Mendiak	52,5	46,08%
Guztira	114,0	100,00%

Ikus daitekeenez, aztertutako gastuaren ia-ia ehuneko 75 azaltzen dute kulturak eta mendiak mantentzeak.

3. Aurreko gastuak, aurrekontuen arabera beti ere, 334 milioiko dirusarrerekin finantzatu dira: per capita 183.000 pezeta inguru.

Egindako gastuekin konparatuz gero, 155 milioiko finantzaketa-soberakina ateratzen da.

Kontuan hartzen bada egin dugun zerbitzu-mailaketa, egiturazkoak 116 milioi dira, eta gainerakoak 218 milioi.

4. Administrazio-alorreko egitura-gastuak testuinguru egokian kokatzeko asmoz, hurrengo laukian jasoko dugu alor horretan dauden langileen kopurua, bai Ibarreko entitateetan, bai ondokoe-tan ere:

- biztanle kopuru beretsuko toki entitateak (Agoitz eta Olazti),
- Erronkariko ibarra, antzeko ezaugarriak baititu,
- Baztan; izan ere, nahiz eta askoz ere biztanle gehiago izan, antzeko egitura geografikoa du –antolamendu politikoa, ordea, oso bestelakoa da, entitate bakarra baitago ibar osorako.

Erreferentzia	Zaraitzu Ibarra	Erronkari Ibarra	Baztan	Irunberri	Agoitz	Olazti
Biztanleak	1.825	1.872	7.806	1.419	1.848	1.622
Azalera (km ²)	310,0	412,2	376,8	56,9	13,2	19,6
Gastuak (milioitan)	212 (3)	281 (2)	768 (2)	173 (2)	174 (2)	204 (1)
Idazkariak	4	4	1	1	1	1
Ekonomistak/kontu-hartzaileak	-	-	1	-	-	1
Adm.-ofiziala	-	1	4	1	-	1
Adm. laguntzailea	0,5	-	1	1	2	-
Zerbitzu anitzak	3	3	1	1	1	1
Adm.ko langileak, guztira	7,5	8	8	4	4	4
Adm.ko langileen kostua, biztanleko (pezetatan) (4)	11.513	11.000	2.385	6.600	4.800	6.600
Langileak (km ²)	0,02	0,02	0,02	0,2	0,30	0,20
100 biztanleko zenbat langile	0,41	0,43	0,10	0,25	0,22	0,25

(1) 1996koak

(2) 1997koak

(3) 1998koak

(4) mailako soldataren arabera finkaturiko kostuak

Datu horiek aztertu, eta, konparazioaren mugak muga, hurrengoak azpimarratuko ditugu:

- Zaraitzuko datuak bat datoz ia-ia alderdi guztietan Erronkarikoekin; izan ere, horien administrazio-egitura, tamaina eta banaketa berdintsuak dira.

- Ibarreko administrazio-langileak gainerako toki entitate bakunena halako bi dira, ia-ia, eta toki entitate bakunetako langileen kopurua antzekoa da. Hala ere, Baztan Ibarreko langile-kopuruarekin –ez egiturarekin– bat datoz, Baztan Ibarreko biztanleak Erronkarikoak halako lau badira ere, ia-ia. Joera bera erakusten du 100 biztanleko langile kopuruaren ratioak.

- Zaraitzu eta Erronkariko egiturak batetik eta Baztangoak bestetik ezberdinak dira, funtsean, idazkariaren lanpostuak administrariarenak baino pisu handiagoa duelako; halatan, idazkariak denbora dezente eman behar izaten du administrazio-beharrizanak betetzen eta jendeari arreta eskaintzen. Halere, langileen km²-ko ratioa bñat bera da, praktikan, hiru ibarretan, eta aztertu diren gainontzeko entitateetakoak baino txikiagoa da.

Laburbilduz, Ibarrearen azalera handiak, orografia bereziak eta egungo antolaketa politikoak –bederatzi udal baititu– ehun biztanleko langile ratioa eta biztanleko kostua handiagoak izatea dakarte.

5. Egungo baldintzetan, Ibarreko udal guztiek banaka ematen dituzte zerbitzu publikoak, oro har. Salbuespenak badira, ordea:

- Gizarte zerbitzu oinarrikoak, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak kudeatzen baititu

- Turismoa, Nafarroako Pirinioko Turismo Partzuergoak ematen baitu. Gorza eta Sartze partzuergotik kanpo gertatu dira.

- Hiri hondakin solidoak bildu eta tratatzea, Ezka-Zaraitzuko Mankomunitatearen esku (1).

- Hermendien aprobeitxamendua, Ibarreko Batzarrearen esku.

- Hiltegia, Otsagabiko Udalak ematen baitu ibar osorako.

- Idazkaritza eta kontabilitate lanak: lau idazkaririk egiten dituzte.

6. Gure iritzirako, eta aurreko ondorioak ikusita, egoki litzateke entitate bakarrean biltzea zerbi-

tzuak emateko kudeaketa. Hurrengoak aipa ditza-kegu hori zuzenesteko:

- Ibarrean bada ohiko elkarte bat, gutxieneko egitura administratiboa duena: Ibarreko Batzarre Nagusia.

- Toki Administrazioari buruzko Foru Legeak ere horretarako bide ematen du; izan ere, bere 30.3 artikulua ezarri duenaren arabera, ohiko elkarteen baitako udalek aipatu elkarteen esku utz dezakete zerbitzuak emateko edo jarduerak burutzeko eskumenen erabilpena.

- Zerbitzuak emateko egungo banaketak, non mota eta izaera orotako entitateak pilatzen diren (udalak, ohiko elkarteak, partzuergoak, mankomunitatea eta zerbitzu udalekotua), ez du adierazten zerbitzuak modu arrazionalen ematen direnik.

- Begibistakoa denez, funtsezko zerbitzuei gero eta kalitate handiagoa eskatzeko joera dago.

Hala ere, Batzarreaz besteko unitate administrazioa sortzeko aukera ere azter daiteke: arian-arian eskuratuko litzuke eskumenak, ohiko elkarte bati dagozkionak utzirik Batzarreari.

Azkenik, gure ustez, bateratze horrek ez luke zerbitzuak emateko kostuaren murrizketa nabarmenik ekarriko, epe laburrean bederen; bai, ordea, zerbitzuen egitura arazoizkoagoa, kalitatea hobetuko lukeena.

7. Arian-arian bereganatu beharko dituzte eskumenak Ibarreko Batzarreak edo bestelako administrazio-unitateak; izan ere, giza- eta gauzabaliabideen beharrizanak finkatu beharko dira aurretik, egun daudenekin konparatu, eta ezarpen-egutegia erabaki.

Gure ustez, lehen fasean, administrazio- eta kontabilitate-zereginak bateratu behar dira (idazkaritza, kontuhartzailtza, diruzaintza, ordainarazpenak eta errentak, derrigorrezko dirubilketa ...). Giza-baliabideei eta baliabide informatikoei buruzko aurreikuspenak eskatuko litzuke bateratze horrek.

Hurrengo faseetan, aldiz, egun banaka ematen diren zerbitzuen kudeaketa bateratuari ekin beharko litzaike. Hurrengoak azpimarratuko ditugu, duten garrantziarengatik:

- Uraren kudeaketa integrala, hiru faseak, alegia: alta, banaketa eta saneamendua.

(1) *Tasen kobrantzaren kudeaketa salbu, Udalek egiten baitute.*

- Oihan aprobetxamenduen kudeaketa – horrek ez du eragotziko baliabideak udal bakoitzari atxikitzea.

- Hirigintza arloko aholkularitza zerbitzuak bateratzea.

Prozesu honek ez du esan nahi egungo udaletan biztanleei arretarik egingen ez zaienik bai langileen bidez, bai komunikazio-sistema berrien bitartez.

Funtsean, eta **azken laburpen gisa**, Ibarra osatzen duten toki entitateek biztanle gutxi izateak, azalera geografikoa handiak, mendi-ingurutzat jota egoteak eta egungo antolaketa politikoak, zerbitzuak emateko egiturekin batera, zera eskatzen dute: zerbitzu publikoen kudeaketa entitate bakarrean bateratzea, egitura arrazoizkoago bat lortzeko, zeinak zerbitzuak emateko kostuak egokituko dituen eta zerbitzuen kalitatea hobetuko duen.

Gure ustez, Ibarreko Batzarreak beregana dezake aipatu zeregina, tradizioa eta gutxieneko egitura administratiboa badituelako. Hala ere, beste aukera batzuk ere ez dira baztertzen, Batzarreari ohiko eskumenak bakarrik uzteko.

Abiapuntutzat hartzen baditugu, alde batetik, Ibarreko biztanleen eta udalen atxikimendua, eta, bestetik, udal bakoitzaren ohiko eskubideak zaintzea, hauexek beharko lirateke, funtsean, aipatu bateratzerako:

- Giza-baliabideei buruzko azterketa egitea, egun dauden langileak abiapuntutzat hartuta, baina beharizan berriak eta lanpostu jakin batzuk birmoldatzeko aukera baztertu gabe.

- Behar diren gauza-baliabideak aztertzea, ofimatikari buruzkoak, batez ere.

- Eskumenak bateratzeko egutegia edo lehen-tasunak ezartzea. Administrazio-, ekonomia- eta

kontabilitate-zereginak zertuko dira lehenbizi; gainerako zerbitzuak gero, arian-arian.

Bateratze prozesuaren zabaltasunak eta zailtasunak, noski, Nafarroako Gobernuaren lankidetzatza eta aholkularitza galdatzen du.

Azkenik, Ganbara honek uste du, aipatu prozesuaren zailtasunak zailtasun, bateratzearen zuzeneko abantailak handiak izanen direla biztanleentzako, bai finantza-aurrezpenarengatik, bai zerbitzuaren kalitatearen aldetik: Erronkari Ibarreko ongizate-maila hazi egingo litzateke.

Lan hau egiteko ardura izan duen Ignacio Cabeza del Salvador auditore jaunak hala proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

